

Iñaki Odriozola

IRAKASLEA ♦



INIGO AZKONA

Pertsona helburu

GOGORATZEN DUT, orain urte batzuk, eskuineko abertzaletasunaren guru batek, garaiko ezker abertzaleari egozten ziola kanpoko ideologiak –sozialismoa– Euskal Herrira ekartzea, berak babesten zuena bertako, eta berezko gauza balitz bezala.

Izan ere, daukagunaren aldekoek uste arazten digute eurena ez dela ideologia, errealitatea baizik. Indarrean dagoena “horrela delako” da, hausnartu gabea, aldaezina. Eta kito. Zerbait aldatu nahi baduzu, orde, ideologia inposatzen ari zara.

Gizarte klasikoaren hastapenetan dago, jada, liberalismoaren babesleek erabiltzen duten ustezko gizabanakoaren goraipamena. Azkenaldian entzuten ari garen bezala bertakoen ahotik, “pertsona helburu”.

Gezur galanta. Kapitalismoaren jendartearen gizabanakoa ez da inoiz helburua izan, baliabidea baizik; eliteek, botere ekonomikoa duten gutxi batzuek, kapitla pilatzen jarraitzeko erabiltzen duten tresna. Merkantzia. Objektu hutsa.

Horregatik, norbaitek pertsona helburu duela esaten badit (ikasle ohia izanda ere) muturra okertzen zait, zerbait ezkututzen ari dela uste baitut. Izatez, sistemara era erosoan egokituta dauden pertsonak formatzea eta garatzea duela helburu iruditzen zait, ez besterik.

Osasuntsu, enprededore, baikor, konformista, akritiko eta bere buruaren jabe dela uste duen pertsona da inperialismoak behar duen gizabanakoa. Berekoia, lehiakor, nahimena ahalmen bilaka daitekeela uste duen “errendimenduaren subjektua”, oraingo pentsalariak dioten lez.

Neoliberalismoaren pentsalariak sinestarazi digute

hori dela gizabanako aske izateko modu bakarra: bizitza erdia ekoizten, eta beste erdia erosten dabilena. Langile eta kontsumitzailea behar dute. Merkatuaren dimentsio-bakarrean protestatu gabe iraun ahal izatea, pertsonaren helburu.

Eta denok, aske izan nahian, nahi dugun guztia lortzearen esklabo bihurtu gara: “Hau askatasun paregabea!”, ezin da denbora galdu, dena lortu nahi dugu, eta komenigarria egin zaigu sinestea edozer lor dezakegula, benetan nahi badugu.

“Nahi izatea ahal izatea da”. Hona hemen berriro modan jarri zaigun adierazpen tamalgarririk eta arriskutsua. Denak izan behar du helburua, jarraipena, eta lorpen bat; eta bukaezinako aurrerapenaren espiralean kateaturik gauzkate, etekina atera nahiaren gupil zoroa ezin etenda. Pertsonak ez gara helburu, eta gainera, helbiderik gabeko izaki gara. Hau komeria!

Ametsak, amerikarrak eta beste guztiak, ametsak besterik ez direla noizbait konturatuko gara. Ala ez? ■

Ezin da denbora galdu, dena lortu nahi dugu, eta komenigarria egin zaigu sinestea edozer lor dezakegula, benetan nahi badugu

DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

Gorotz melenga

AUZOA ez dute patitzen, beltzak eta arabiarrak partida dituzte, zainetan plazaratzen diren biktima gaizoak dira, larderiazko aroaren etorrera iragartzen digute gaiztoki: ikusiko duzue zer gertatuko zaiuzuen gobernuan diratekenean... mehatxuak eta izuak banatzen dituzte ahapez, ordezkatzeko duten alderdia ez delako, jada ederki banalizatua den arren, arras katolikoa –errateko moldeak da, noski–. Euskaldunak dira, fededunak, Frantziaren iragan distiratsu baten nostalgikoak, min eta zauri guztiak beti besteren erruz datozela errepikatzen zinpurtzen direnak!

Errobi eskualdean, semea FNko zerrendaburu duen emazteari begira nagokio. Oilo koloka urgulutsu eta egoskorren antzera bermatzen zait aitzinean: ez dut bere gorrotoa ulertzen, dena dauka zoriontsu izateko bizitza ezer ez duen lagun protsimoaz jeloskor higtu gabe. Kopeta apaltzen dut eta, ezintasunaren uholde itogarria bailitzan, negar gutizia nigan igotzen nabaritzen dut. Gorotz melengak zikintzen ez duen izkina izpirik ez baita gehiago herra zilegi bezain lege dagoen bazter hauetan.

Irabazten utziko al ditugu? ■